

EUSKARAREN EGOERA ARABAN**I. Euskara Euskal Herrian**

1866 urtean 902.000 euskal herritarretatik 471.000 inguru euskal eleduna zen (Aztiker, 2002). Egun, 141 urte berandua-go, euskal herritarren artean euskaldunak ez dira herenera iristen. Zehatzago esateko, Euskal Herriko biztanleriaren %25 da euskalduna.

Nolanahi ere, kontuan izan behar dugu desberdintasun nabarmenak daudela zazpi herrialdeen artean, hizkuntza gaitasunari dagokionez. 1. taulan ikus daitekeen bezala, euskaldun gehien, hau da, euskaraz ondo ulertu eta hitz egiten duen jende gehien EAEn (%29,4) dago eta gutxien Nafarroan (%10,3).

1. Taula: hizkuntza gaitasuna, lurraldearen arabera Euskal Herrian 2001. urtean (%)			
	EAE	Nafarroa	Iparraldea
Euskaldunak	29,5	10,3	24,7
Ia-euskaldunak	11,4	6,6	11,9
Erdaldunak	59,2	83,1	63,4
Laginaren tamaina	3.600	1.504	1.717

Iturria: Soziolinguistika Inkesta 2001. Eusko Jaurlaritza

Hizkuntza gaitasunari dagokionez ez ezik, euskarak izan duen bilakaerari dagokionez ere desberdintasun garrantzitsuak daude EAEren, Nafarroaren eta Iparraldearen artean.

2001eko Soziolinguistika Inkestak erakusten duen bezala (Eusko Jaurlaritza, 2005), EAEn euskaldunen kopurua gora doa, batez ere gazteen artean. Modu berean, euskararen transmisioa ia erabatekoa da guraso biak euskaldunak direnean. Areago, euskara gero eta gehiago transmititzen da bietako batek bakarrik dakienean, nahiz eta kasu horietan euskara eta gaztelania, biak batera, transmititzen diren.

EAEn bezala, Nafarroan ere gero eta euskaldun gehiago da-go. Hazkunde hori euskaldun berriei esker gertatzen ari da, euskaldun zaharrak etengabe gutxitzen ari direlako. Are gehiago, euskaldun berriak euskaldun zaharrak beste dira jada. Hala eta guztiz ere, galerak irabaziak baino handiagoak dira oraindik. Nahiz eta euskal hiztunak gero eta gehiago izan, euskarak irabazten dituen baino pertsona gehiago galtzen ditu. Gazteen artean, baina, alderantziz gertatzen da; hau da, 35 urte baino gutxiago dituztenen artean, euskara etxean ikasi eta ondoren galdu dutenen taldea, euskara etxetik kanpora ikasi dutenen taldea baino txikiagoa da (Eusko Jaurlaritza, 2005).

Iparraldean, euskara ez da hizkuntza ofiziala, eta, gainera, egunetik egunera indarra galtzen ari da, oso azkar gainera. Orain arte euskarak familian, lagunartean eta gertuko komunitatean indarra izan badu ere, gero eta baztertuago gelditzen ari da. Euskararen galera nabaria da Iparraldean.

Nolanahi ere, uka ezina da apurka-apurka elebidunen kopurua gora doala Euskal Herrian, eta euskarak orain dela urte batzuk baino egoera hobeagoa duela (Euskal Herriko Soziolinguistikazko Inkesta, 1991, 1996, 2001). Euskal hiztunen gorakada hau konstantea da, eta horrek esan nahi du, nire ustez, euskal hiztunak galtzeko prozesua gelditu egin dela.

Aurrerapausoak aurrerapauso, euskararen egoera ez da bat ere ona erabilerari dagokionez. Azterketek erakusten du-

tenaren arabera, gutxiengoa dira euskara eguneroko harremanetan erabiltzen dutenak. 2001. urtean egin zen euskararen kale erabileraren neurketaren arabera (Juaristi, *Bat Sozio-linguistika Aldizkaria*, 43. zenbakia), Euskal Herriko zazpi biztanletik batek (%13,5) baino ez du kalean euskara erabiltzen.

Hala ere, desberdintasunak daude Euskal Herriko herrialdeen artean. Gutxi gora-behera hamar bizkaitarretik batek (%11) hitz egiten du euskaraz kalean. Zentzu honetan, Euskal Herriko herrialdeen artean, Bizkaia tarteko egoeran dago euskararen erabilerari dagokionez; izan ere, bizkaitarrak gipuzkoarrak (%30,1) baino erdaldunagoak dira, baina arabarrak (%3,3), nafarrak (%6,7) eta iparraldekoak (%5,8) baino euskaldunagoak.

Artikulu honen xedea da euskarak Araban duen egoera ezagutzea. Izan ere, tradizioz herrialderik erdaldunenetarikoa izan da Araba, eta garrantzitsua da herrialde honetan gertatzen dena ezagutzea, euskarak etorkizunean bizitzeko dauzkan aukerak ezagutzeko.

II. Euskaraz ulertzeko eta hitz egiteko gai direnen bilakaera Araban

Laurogeigarren hamarkadatik EAEko euskaldunen kopurua gora doa atzera pausorik, etenik edota geldialdirik gabe. 2001. urtean 1981ean baino 209.204 euskaldun gehiago bizi zen Bizkaia, Gipuzkoa eta Araban. Edo nahiago baduzue, 1981etik 2001era, batez beste, urtero, 10.460 euskaldun gehiago agertu ziren EAEn. Hizkuntza gaitasunari dagokionez, euskarak eman duen aurrerapausoa begi-bistakoa da.

1981. urtean 447.776 euskaldun bizi ziren EAEn eta 2001.ean 656.980. Hots, 1981ean baino 209.204 euskaldun gehiago bizi zen Euskal Autonomia Elkartearen. Esan bezala, euskaraz hitz egiteko gai direnen kopurua asko handitu da.

2. Taula: Bi urteko eta gehiagoko EAEko biztanleriaren bilakaera, euskara maila orokorraren arabera (1981-2001)					
	1981	1986	1991	1996	2001
Euskaldunak	447.776	513.804	543.617	636.816	656.980
–Alfabetatuak	208.319	318.941	368.921	484.007	527.771
–Erdizka alfabetatuak	179.296	138.984	127.068	113.985	106.433
–Alfabetatugabeak	60.161	55.879	47.628	38.824	22.776
Ia-euskaldunak	300.394	364.162	410.536	406.810	470.124
–Alfabetatuak	160.203	222.124	263.908	266.112	302.487
–Alfabetatugabeak	84.110	76.567	72.262	65.843	71.711
–Pasiboak	56.081	65.471	74.366	74.855	95.926
Erdaldunak	1.328.278	1.212.029	1.114.774	1.018.899	906.143
Bi urte edo gehiago biztanleria guztira	2.076.448	2.089.995	2.068.927	2.062.525	2.033.247

Iturria: www.eustat.es

Hala eta guztiz ere, EAE osatzen duten hiru lurraldeen artean desberdintasun adierazgarriak daude euskaldun kopuruari dagokionez, baita euskarak izan duen bilakaerari dagokionez ere. Hain zuzen ere, euskaldun gehien Gipuzkoan bizi da eta gutxien Araban. 2001eko datuetan oinarritzen bagara, 2 urte eta gehiagoko EAEko euskaldun guztien %51,4 Gipuzkoan bizi zen, %41,6 Bizkaian eta %7 Araban.

3. taula: 2 urteko eta gehiagoko biztanleri euskalduna, lurralde historikoaren arabera 2001. urtean		
Araba	45.312	%7
Bizkaia	273.872	%41,6
Gipuzkoa	337.796	%51,4
Euskaldunak guztira	656.980	%100

Iturria: www.eustat.es

Argi dago, beraz, EAE osatzen duten hiru lurraldeetatik Araba dela euskaraz hitz egiteko gai direnen masa kritiko txikiena duen herrialdea. Hau da, Araba da EAEko herrialderik erdaldunena. 4. taulan ikus daitekeen bezala, bi urte eta gehiagoko arabarren %16,21 zen euskalduna 2001. urtean.


4. Taula: Bi urteko eta gehiagoko Arabako biztanleriaren bilakaera, euskara maila orokorraren arabera (1981-2001)					
	1981	1986	1991	1996	2001
Euskaldunak	3,89%	6,67%	8,59%	14,61%	16,21%
Ia-euskaldunak	9,55%	16,84%	20,03%	19,63%	24,66%
Erdaldunak	86,56%	76,49%	71,38%	65,76%	59,13%
Bi urte eta gehiagoko Arabako biztanleria guztira	249.056	261.228	267.557	277.011	279.460

Iturria: www.eustat.es

EAEko herrialderik erdalduna izanda ere, argi dago gero eta euskaldun gehiago bizi dela Araban. Nahiz eta onartu egin behar den Araba ez dagoela euskalduntzen Bizkaia eta Gipuzkoako abiadurarekin, apurka-apurka gora doa euskaldun kopurua. 1981. urtean, bi urte eta gehiagoko biztanleriaren %3,89koa zen euskalduna eta 2001. urtean %16,2. Hots, 20 urtean euskaldunen ehunekoa hirukoiztu egin da. Franco hil ostean euskarak Araban zuen egoera kontuan hartzen badugu, 2001. urtean bi urteko eta gehiagoko arabarren %16,21 euskalduna izatea aurrerapauso nabarmena da, nire ustez.

Araba euskalduntzen ari den heinean, bere hiriburua ere euskalduntzen ari da. 2001. urtean 1981. urtean baino 25.279 euskaldun gehiago bizi zen Gasteizen. Edo nahiago baduzue, 1981. urtean bi urte eta gehiagoko gasteiztarren %3,39 zen euskalduna eta 2001. urtean biztanleriaren %14,88. Gasteizko euskaldunen elkartea Donostiakoa eta Bilbokoa bainoa txikiagoa bada ere, uka ezina da euskarak aurrerapauso sendoak

2 urte eta gehiagoko biztanleak. Euskara maila globala (%).
Araba/Alava



Iturria EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsua. Biztanleen Udalerrolda eta Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika.

eman dituela Arabako hiriburuan. Gainera, kontuan hartu behar dugu Gasteizen bizi dela Arabako euskaldunen kopururik handiena; gutxi gora-behera 31.000 euskaldun.

Hala ere, onartu egin behar da Gasteiz Araba bere osotasunean hartuta baino astiroago euskalduntzen ari dela. Hain zuzen ere, 2001. urtean arabarren %16,21 zen euskalduna eta gasteiztarren %14,88.

5. taula: Bi urteko eta gehiagoko Gasteizko biztanleriaren bilakaera, euskara maila orokorraren arabera (1981-2001)

	1981	1986	1991	1996	2001
Euskaldunak	3,39%	5,94%	7,51%	13,62%	14,88%
Ia-euskaldunak	11,17%	17,42%	20,81%	20,57%	25,78%
Erdaldunak	85,44%	76,64%	71,68%	65,81%	59,34%
Bi urte eta gehiagoko Gasteizko biztanleria	182.803	194.446	202.335	210.447	211.515

Iturria: www.eustat.es

III. Ama hizkuntza Araban

Arabako etxeetan egiten den euskararen erabilera ez da asko aldatu 1991tik 2001era. Hain zuzen ere, 1991. urtean arabarren %1,33k hitz egiten zuen euskaraz etxean eta 2001. urtean %1,92k. Euskaraz hitz egiteko gai direnen ehunekoa handitu bada ere (1991. urtean, bi urte eta gehiagoko Arabako biztanleriaren %8,59 zen euskalduna eta 2001ean %16,21), euskararen erabilera ez da asko hazi.

6. taula: Etxean hitz egiten den hizkuntza Araban 1991-2001

	1991	1996	2001
Euskara	1,33%	1,52%	1,92%
Gaztelania	95,50%	94,58%	93,58%
Biak	2,76%	3,41%	3,52%
Beste bat	0,41%	0,49%	0,97%
Guztira	272.447	281.821	286.387

Iturria: www.eustat.es

Arabako euskaldunak hartzen baditugu bakarrik, argi agertzen da gaztelania jaun eta jabe dela Arabako euskaldunen etxeetan. Hain zuzen ere, gutxi gora-behera hamar arabar euskaldunetik batek (%11,49k) hitz egiten du euskaraz etxean. Gainera, 1991. urtetik gutxitu egin da etxean euskaraz hitz egiten duen arabarren ehunekoa. Hain zuzen ere, 1991. urtean arabarren %15,21ak hitz egiten zuen euskaraz etxean eta 2001ean %11,49ak.

7. taula: Arabako euskaldunen etxeko hizkuntza

	1991	1996	2001
Euskaraz	15,21%	10,03%	11,49%
Gaztelera	60,57%	70,89%	71,37%
Bietan	24,08%	18,84%	16,94%
Beste hizkuntza bat	0,14%	0,24%	0,21%
Arabako euskaldunak guztira	22.995	40.479	45.312

Iturria: www.eustat.es

IV. Hizkuntza-bilakaeraren tipologia: bila indizea

Arabako euskararen etorkizuna nolakoa den jakiteko, garrantzitsua da euskarak herrialde honetan galdu ego irabazi dituen hiztunak zenbat diren jakitea. Horretarako, Bila indizean oinarrituko naiz. Indize hau hizkuntza-gaitasuna eta lehen hizkuntza aldagaiak gurutzatuta lortzen da. Honako zazpi taldek osatzen dute tipologia:

1. Euskaldun zaharrak: Ama-hizkuntza euskara izan eta euskara ondo ulertu eta hitz egiten duten pertsonak.

2. Jatorrizko elebidunak: Ama-hizkuntza euskara eta gaztelania izan eta euskara ondo ulertu eta hitz egiten duten pertsonak.

3. Euskaldun berriak: Ama-hizkuntza gaztelania edo euskara ez den beste hizkuntza bat izan eta euskara ondo ulertu eta hitz egiten duten pertsonak.

4. Partzialki euskaldun berriak: Ama-hizkuntza gaztelania edo euskara ez den beste hizkuntza bat izan eta euskaraz “nekez” hitz egin edo, hitz egiten ez badute, ondo ulertu eta irakurtzen duten pertsonak.

5. Partzialki erdaldunduak: Ama-hizkuntza euskara edo euskara eta gaztelania izan eta euskaraz nekez hitz egin edo, hitz egiten ez badute, ondo ulertu eta irakurtzen duten pertsonak.

6. Guztiz erdaldunduak: Ama-hizkuntza euskara edo euskara eta gaztelania izan eta euskaraz ezer ez hitz egiteaz gain, ez dute ondo ulertzen, ezta irakurtzen ere.

7. Erdaldun zaharrak: Ama-hizkuntza gaztelania edo euskara ez den beste hizkuntza bat izan eta euskaraz ezer ez hitz egiteaz gain, ez dute ondo ulertzen, ezta irakurtzen ere.

Zortzigarren taulan ikus daitekeen bezala, oro har, EAEko biztanleriak gorde egin du euskara. Izan ere, euskaldunen elkarrekin galdu dituen baino hiztun gehiago irabazi ditu, euskal-

dun berriei esker. Etxetik euskaldunak izanik erdaldundu direnak %2,1 dira; aldiz, etxetik erdaldunak izanik euskaldundu direnak %10,84 dira. Gutxi gora-behera, euskarak 5 urte eta gehiagoko pertsonen %8,74 irabazi ditu.

8. taula: Hizkuntza tipologiak 5 urte eta gehiagoko EAEko pertsonen artean 1986. urtetik 2001.era				
	1986	1991	1996	2001
Euskaldun zaharrak	18,94%	18,86%	18,85%	18,44%
Jatorrizko elebidunak	2,18%	2,14%	2,63%	2,93%
Euskaldun berriak	3,55%	5,40%	9,39%	10,84%
Partzialki euskaldun berriak	12,51%	14,19%	14,26%	16,60%
Partzialki erdaldunduak	2,24%	2,05%	1,75%	1,58%
Gutiz erdaldunduak	0,93%	0,91%	0,68%	0,52%
Erdaldun zaharrak	59,65%	56,45%	52,44%	49,09%
Gutztira	2.016.263	2.014.856	2.015.022	1.984.958

Iturria: www.eustat.es

Arabari dagokionez, arabarren %64,03 erdaldun zaharrak dira, eta oso gutxi dira euskaldun zaharrak (%2,94) eta jatorrizko elebidunak (%1,48). Hala ere, azpimarratzekoa da *euskaldun berrien* taldeak duen indarra (%11,60); hain zuzen ere, hiru lurralde historikoetako ehunekorik handiena.

Horrekin batera, aipatzekoa da euskarak galdu dituen arabarrak, hau da, partzialki erdaldundutakoak eta guttiz erdaldundutakoak 5 urte eta gehiagoko Arabako biztanleriaren %0,95 direla. *Euskaldun berriak* %11,60 direla kontuan hartzen badugu, argi dago euskarak irabazten dituen hiztunak galtzen dituenak baino gehiago direla. Irabaziak eta galerak alderatzen baditugu, euskarak 5 urte eta gehiago arabarren %10,65 irabazten du.

9. taula: Hizkuntza tipologiak 5 urte eta gehiagoko Arabako pertsonen artean 1986. urtetik 2001.era				
	1986	1991	1996	2001
Euskaldun zaharrak	2,35%	2,45%	2,56%	2,94%
Jatorrizko elebidunak	0,81%	0,91%	1,30%	1,48%
Euskaldun berriak	3,55%	5,29%	10,66%	11,60%
Partzialki euskaldun berriak	14,05%	16,12%	15,76%	18,99%
Partzialki erdaldunduak	0,70%	0,67%	0,64%	0,65%
Gututz erdaldunduak	0,40%	0,39%	0,45%	0,30%
Erdaldun zaharrak	78,14%	74,19%	68,62%	64,03%
Gutztira	250.916	259.887	270.347	272.716

Iturria: www.eustat.es

V. Ondorio orokorrak

Esan bezala, EAE osatzen duten hiru lurraldeetatik Araba da euskaraz hitz egiteko gai direnen masa kritiko txikiena duen herrialdea. Hau da, Araba da EAEko herrialderik erdaldunena.

Hala ere, gero eta euskaldun gehiago bizi da Araban. Zehatzago esateko, 20 urtean euskaldunen ehunekoa hirukoiztu egin da (1981. urtean, bi urte eta gehiagoko biztanleriaren %3,89koa zen euskalduna eta 2001. urtean %16,2).

Modu berean, Gasteiz ere euskalduntzen ari da. 2001. urtean 1981. urtean baino 25.279 euskaldun gehiago bizi zen Gasteizen, eta, momentu honetan, 31.000 bat euskaldun bizi dira bertan.

Oro har, euskarak irabazten dituen hiztunak galtzen dituenak baino gehiago dira Araban; eta hau guztia euskaldun berriei esker gertatzen ari da. Kontuan izan behar da Araban *euskaldun berrien* taldeak indar handia duela (%11,60); ehunekoetan, Bizkaian eta Gipuzkoan baino gehiago.

Aurrera pausoak, aurrera pauso, ezin da ahantzi Arabako etxeetan egiten den euskararen erabilera ez dela asko aldatu 1991tik 2001era. Hain zuzen ere, 1991. urtean arabarren %1,33k hitz egiten zuen euskaraz etxean eta 2001. urtean %1,92k.

Arabako euskaldunen euskararen erabilera aztertzen badugu ere, ondorio berdinetara heltzen gara: gaztelania jaun eta jabe da Arabako euskaldunen etxeetan. Hain zuzen ere, gutxi gora-behera euskaraz hitz egiteko gai den hamar arabarretik batek (%11,49k) hitz egiten du euskaraz etxean. Gainera, 1991. urtetik gutxitu egin da etxean euskaraz hitz egiten duen arabarren ehunekoa. Hain zuzen ere, 1991. urtean arabarren %15,21ak hitz egiten zuen euskaraz etxean eta 2001ean %11,49ak.

Emandako aurrerapausoak ahantzi gabe, argi dago euskara ahul dagoela Araban. Ezagutza handitu da, baina etxean egiten den euskararen erabilerak berdin jarraitzen du. Are gehiago, euskaldunen artean gutxitu egin da etxean euskaraz hitz egiten dutenen taldea. Euskararen alde egin diren ekimen eta kanpainak gurasoak euren seme-alabak D ereduan matrikulatzera bultzatu badituzte ere, hori ez da erabileran islatu. Gaur eguneko arabarrek euskaraz aritzeko edota harremanak euskaraz egiteko aukera gutxi dute.

Gauzak horrela, beharrezkoa da erne egotea eta euskararen aldeko neurri egokiak hartzea. Zentzu honetan, eta Arabako elebidun gehienak hiriburuan bizi direla kontuan hartuz, ezinbestekoa da Gasteizen euskaraz hitz egiteko edota euskara sustatzeko ekimenak bultzatzea (Eusko Jaur-larritza, 2005). Euskaraz aritzeko esparru liberatuak eta euskarazko ekimen erakargarriak sortu behar dira, batez ere ume eta gazteen aisialdiri begira. Izan ere, euskararen eza-gutzak eta erabilerak ez dute aurrera egingo euskararen inguruan produktu eta elkargune erakargarriak sortzen ez bada.

VI. Erabilitako bibliografia

Aztiker (2002): *Euskal Herria Datuen Talaiaetik*. Udalbiltza, Astigarraga.

Eusko Jaurlaritza-Eustat (2005): *III. Mapa Soziolinguistikoa*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Vitoria-Gasteiz.

Juaristi, P. (2002): “Euskararen kale erabilera Bizkaian”. *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, 43. zenbakia, Andoain, 85-95 orrialdeak.

Patxi Juaristi